

*Gaur pleno honetara ekarri dugun testu hau Getxoko hainbat herritar eta eragilek sinatu dugu. Denok gara euskaldunak (elebidunak, beraz) eta euskaltzaleak eta Getxon bizi gara, lan egiten dugu, gurasoak gara edo eta Getxoko elkarteren batean gabiltza. Hau egin dugu, alde batetik, kezkatuta ikusten dugulako bereziki azken bolada honetan eta batez ere komunikabide batzuetan talde eta pertsona batzuk euskarazko irakaskuntzaren kontra dabilzala eta, bestetik, hemen zaudeten arduradun politiko guztioi esateko gure ustez, Getxon, Euskal Herri osoan bezala, eskolak umeak euskaldundu behar dituela.*

Pertsona eta talde batzuek mezu batzuk bota dituzte azken asteotan hizkuntza eta irakaskuntza dela eta. Zoritzarrez, hau ez da berria, kate historiko luze baten azken kapitulua besterik ez baita. Erabilitako argumentuek, egia ez izateaz gain, tranpa egiten dutela uste dugu. “*Hizkuntza aukeratzeko askatasuna eta eskubidea*” aipatu izan da alde batetik eta “*ikasketak ama hizkuntzan egiteko eskubidea*” bezalakoak, bestetik. Horien aurrean zera esan nahi dugu:

Getxon, beste toki askotan bezala, “*hizkuntza aukeratzeko askatasuna eta eskubidea*” delakoa aplikatu izan da orain arte eta emaitzak mahai gainean daude: eskolak **ume asko euskaldundu gabe** utzi ditu eta uzten ditu; 2007/2008 ikasturteko matrikulazio datuak kontuan hartuta, Haur eta Lehen Hezkuntzako **2.500 ume** euskalduntzen ez duten ereduetan daude matrikulatuta. Ikusten denez, kezkatzeko moduko egoera dugu herrian, **umeen erdiak euskaldundu gabe** jarraitzen du eta.

“*Hizkuntza aukeratzeko askatasun eta eskubide*” delako horrek talka egiten du indarrean dagoen legearekin, honek esaten baitu umea euskalduna izan behar dela ikasketak amaitutakoan. D ereduan gaztelaniaren ezagutza bermatuta dago. Bermatuta dago euskararen ezagutza B eta A ereduetan?

Pertsona eta talde horiek UNESCO bera aipatu izan dute “*ikasketak ama hizkuntzan egiteko eskubidea*” defenditzeko baina ez dute esan, UNESCOk berak, dokumentu horretan, esaldi horretan hau ere esaten duela: “*eleaniztasuna sustatzeko neurriak ahalik eta azkarren hartu behar dira*” eta “*pertsonen ama hizkuntza nazio batekoa edo nazioartekoa izanda ere, pertsona horiek animatu behar ditugu euren herriko beste hizkuntzak ikasi eta erabiltzera*”. Gainera, edonork ulertzen du UNESCO bezalako erakunde batek “*ama hizkuntza*” ren alde egiten duenean normalizatu gabeko hizkuntza gutxituz edo desagertzeko arriskuan dauden hizkuntzez ari dela, horiek babesteko, eta ez noski, babesik behar ez duten gaztelania bezalako hizkuntza batez.

Bi argumentu nagusi erabili izan dituzte beraz, euskarazko irakaskuntzaren kontra egiteko: “*ama hizkuntzan ikasteko eskubidea*” eta “*irakaskuntzaren hizkuntza aukeratzeko eskubidea*”. Eta horien aurrean galdera batzuk dauzkagu: delako eskubide hori zuen umeen etorkizunaren gainera dago? Zer dela eta gogo bizi hori delako eskubide horien alde egiteko, jakinda elebidun izateak onurak baino ez dizkiola ekarriko umeari? Zergatik umea zigortu, atek itxi, aukerak kendu, bere etorkizuna hipotekatu? Zergatik ez eman orain urte batzuk barru euskaltegia edo liberazioen bitartez, zailago, luzeago eta garestiago bilatu beharko duena? Ez zarete konturatzen aukeratzeko eskubiderik ez dagoela elebakarra den bitartean? Nola aukeratuko du hizkuntza bakarra baldin badu? Emaiozue euskara ere eta orduan bai, erabakitze gaitasuna izango du bi hizkuntza ofizial dituen Getxoren etorkizunean.

“*Ama hizkuntza ez den beste batean ikasteak kalte egin diezaioke ikasleari*” irakurri dugu harrirituta. Euskaraz ere jakitearen onurak aipatu beharko bagenitu (didaktikoak, pedagogikoak, psikologikoak, kulturalak eta sozialak), luze joko luke; aditu eta eragile guztiak bat datoz: euskarak ez gaitu banatzen, elkartu egiten gaitu, hurbildu egiten gaitu, laguntzen digu zubiak eraikitzen eta harresiak botatzen; denok euskaraz ere jakinda, arazoak amaitzen dira, denok denona ezagutzen dugulako, elkar hobeto ezagutzeko.

Egoera hau konpontzeko proposatzen ditugun oinarritzko 4 puntuak hauek dira:

1. **Euskara Euskal Herriko berezko hizkuntza da** eta Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalari (Bartzelona, 1996) eta nazioarteko hainbat eskubide-adierazpeni jarraituta, berau jakitea **euskal herritar guztion eskubidea da**.
2. Horregatik uste dugu eskolak ezinbesteko funtzioa bete behar duela belaunaldi berri guztietan euskara bermatzeko. Hau da, **derrigorrezko hezkuntza bukatzean haur eta gazte guztiek euskaraz jakin behar dute**.
3. Horretarako, gaur egun **euskalduntzen ez duten irakaskuntza ereduak gainditu** behar ditugu eta **euskaldunduko duen hezkuntza sistemaren alde** egin behar dugu. Hau esaten dugu irakaskuntzan orain arte indarrean egon den hizkuntza politika agorturik dagoelako, ez baita baliagarria belaunaldi berriei euskararen ezagutza bermatzeko. Beraz, euskararen ezagutza bermatzeko duen hizkuntza politika berria nahitaezkoa da, **hizkuntza eredu bakarra eta euskalduna**.
4. Goikoaz gain, uste dugu irakasle eta hezkuntzako **langile guztiak euskaldunak** izan behar direla, **eskolaz kanpoko ekintzak euskaraz** izan daitezen programak bultzatu behar direla eta eskolak, euskara ez ezik, **euskal kultura eta historia ere transmititu** behar duela.

Orain arte esandako guztiaren alde Getxoko **herritar eta eragile asko gabiltza lanean**. Hainbat kanpaina, manifestu eta sinadura bilketa egin izan da eta egingo dugu **euskarazko irakaskuntzaren alde** eta uste dugu **gure aldarrikapenak kontuan hartu beharrekoak** direla.

*Testu hau, entzun duzue, euskara hutsez idatzi dugu. Guk ez dugu arazorik izan Pleno honetan esan diren guztiak ulertzeko, gaztelaniaz eta euskaraz. Baina zuetako askok ezin duzue gure testua ulertu. Hauxe bera opa diezue hogeit hamar urte barru zuen umeei? Berrituz diogu: euskaraz ere jakinda, askoz hobeto denontzat.*